

«Donostian hogeitabost bat etxe okupatu daude»

Mikel Pintado eta Iñigo Aldabaldetrek donostiarrak, Donostialdeko Okupazio Batzarreko kideak dira. Biak okupatutako etxeetan bizi dira. Pintadok eta Aldabaldetrek, argitaratu berri den "Vivienda: especulación & Okupazioak" liburuan parte hartu dute.

Ainhoa Irazu

Zer aurkituko du irakurleak liburuan?

Iñigo Aldabaldetrek: Giza eta ekonomia azterketa bat egin dugu etxebizitzaren arazoa ikuspegi zabal batez ikusteko. Etxebizitza oinarriko beharra izanik, gaur egungo merkatal gai nagusienetakoa bilakatu da. Jendeak arazoa ulertzea nahi dugu, eta horretarako, eragile guztiak aztertu ditugu. Gainera, gizartean zein erantzun dauden ikusi dugu. Okupazioa ez da espekulazioaren aurrean etxea lortzeko dagoen aukera bakarra. Beraz, beste erantzun kritiko eta sortzaileak ere bildu ditugu: giza arkitektura, autoeraikuntza eta abar. Horrez gain, azken 20 urteotan okupazioak Euskal Herrian izan duen ibilbideaz aritu gara. Liburuak hausnarketarako pizgarri izan nahi du.

Zer esan nahi du zuentzat okupazioak?

Mikel Pintado. Okupazioa espekulazioaren trikimaluetatik kanpo dagoen eta etxebizitzaren arazoari aukera praktikoa emateko tresna da. Zentzu aldarrikatzailea du, espekulazioa salatzen baitu. Okupazioa ez da azpikultura baten erantzuna,



hori topikoa da. Hego Euskal Herriko okupazio batez-besteko handiena Donostialdean da. 500 lagun edo okupatutako etxeetan bizi dira. 500 pertsona horien artean denetarik dago: gazteak, helduak, lan egonkorra duten lagunak, langabeak, familiak...

Donostian zein neurriraino da larria etxebizitzaren arazoa?

IA. Egoera oso larria da. Datuen arabera, 14.000 etxe hutsik daude Donostian eta horietatik 2.500 besterik ez dira bigarren etxeak. Hutsik dauden etxeek salneurriak garestitzen dituzte. Gainerako etxeak ere merkataritza gaitzat erabiltzen dira. Bestalde, duela urte batzuk Donostiako lur eraikigarriaren erdia 12 bat pertsonen esku zegoen, tartean Julian Olaizola "El francés". Arazoa, ordea, ez da soilik espekulazio handiak daudela: eraikuntza enpresak, banketxeak eta abar. Kontua da, etxebizitza diru etekinak ateratzeko tresnatzat hartzen duen jende asko dagoela. Jendeak etxebizitza inbertsio gisa ulertzen du. Bien bitartean, erakundeek arduragabekeria handia erakutsi dute arazoaren aurrean. Azalekoak diren babes ofizialeko politikak jarri ohi ditzuzte indarrean,

gehiengoaren beharrari erantzun gabe.

Donostiako lehen okupazioa Mirakontxako "krakers"-ena izan zen. Ondoren beste hainbat etorri ziren: "La Voz de España", "Toki Onena"... Zenbat etxe okupatu egon dira Donostian?

MP. Donostialdean 40 bat etxe okupatu egon dira, hori bai, horiek ezagunak diren eta okupazioaren izpirituarekin bat egin duten etxeak dira: asanbladaren filosofia,

Liburuak hausnarketarako pizgarri izan nahi du

autogestioa eta abar. Etxe horietatik 25ek horrela diraute egun. Bestalde, lehen aipatu bezala, mota askotako okupak daude. Badago bere kabuz ari den jendea eta aldarrikapen publikorik egiten ez duena. Hori ere aukera polita iruditzen zaigu.

"Zapatari"-k 12 urte iraun zituen. Mugarrria dela esan ohi da. Zergatik?

IA. Batetik, 1980ko hamarkadako garaiak ekarri behar ditugu gogora. Garai horretan bazen halako mugimendu eraldatzaile baten hasiera: irrati libreak, antimilitarismoa, gaztetxeak eta abar. Bestetik, lekua aipatu behar da. Donostia Europako hiririk garestienetakoa da, eta hemen espekulazioak indar handia du. Beraz, esanguratsua da etxe batek 12 urte irautea. Azkenik, "Zapatari"-n talde zabala elkartu zen, eta horrek nolabait eguneroko bizitzan "iraultza" egiteko aukera eman zuen, bere mugak izanik ere. "Zapatari" etxebizitza izateaz gain, lana autogestionatzeko gunea izan zen: okindegia, bizikleta taillerra... Hala ere, badira antzeko beste hainbat etxe: Oiartzungo "Arditurri", esaterako.

Zer nolako jarrera izan du orain artean Udalak okupazioaren aurrean?

MP. Iztuetako etxearekin gertatu zena Udalaren jarreraren adibide garbia da. Iztuetako etxea Grosen zegoen eta bizitzeko eta kultur eta giza jarduerak egiteko erabili ohi zen. Udalarri enbarazu egiten zion etxeak, gehiegi ikusten zen eta. Hiru hilabete besterik ez zituen iraun etxeak eta oso modu bortitzean hustu zuten. Etxea okupatu eta honen aldarrikapen publikoak egiten dituztenak kaltegarriak dira erakundeentzat, izan ere, agerian uzten dute beren etxebizitza politikaren eraginkortasun eza.

Badira Donostian gaztetxe moduan erabiltzen diren etxe okupatuak. Zein da gaztetxeen funtzioa?

IA. Agintarien arau eta gustuek kultur-gune ofizialak mugatzen dituzte. Gazteek beren gaitasunak garatu nahi dituzte inolako mugarik gabe.

Oraindik badira etxe okupatuak hirian. Etorkizunik ba al du okupazioak Donostian?

IA. Hainbeste etxebizitza hutsik egonik ere, espekulatuzaileek bere horretan jarraituz gero, okupazioek jarraituko dute.

Suedian esperientzia bitxiak egin dira Udalen oneritiaz. Esaterako, Stockholmen gazteek etxe zaharrak birgaitu dituzte bertan bizitzeko. Bideragarria izan al daiteke horrelako zerbait hemen?

MP. Horretarako benetako borondate politikoa behar da. Hala ere, etxebizitzaren eredu aldatu beharko litzateke, izan ere, hemengo etxebizitza eredu familiarren beharri estu lotuta dago: egongela, hiru gela, bi komun eta abar. Kontua da, gizartean, badaudela talde batzuk, esaterako, gazteak eta adinduek, eta azken horiek ez dituzte familia arruntaren beharrak. Dena dela, erakundeek ez dute hori guztia aldatzeko inolako asmorik, izan ere, eredu horrek indarrean dagoen eredu ekonomikoarekin bat egiten du: garrantzitsua irabazi handiak ateratzea da. Bestalde, duela gutxi arkitektura fakultatean oso egitasmo interesgarria jaio zen: "Oskoltxe". Usurbilko eskola zena birgaitu nahi zen, bertan gazteentzako etxebizitzak egiteko. Tamalez, egitasmoa ez da gauzatu.

Europar okupazioak bilakaera ezberdina izan du lekuaren arabera. Holandan begi onez ikusi ohi dute. Ingalaterran, berriz, kriminalizatuta dago. Zer dio legeak horri buruz?

IA. Holandan egoera oso bitxia da, izan ere, Amsterdamen sei hilabeteko hutsik dauden etxebizitzak zerranda atera ohi du Udalak. Suitzan, berriz, etxea okupatu eta hilabetera egoera normalizatu egiten da.

Zapatari lana autogestionatzeko gunea izan zen

Salbuespenak salbuespen, Europar duela bost urte kode penalak bateratzea erabaki zen, okupazioarekin eta bestelako disidentziekin bukatzeko asmoz.

Zein da egoera Espainian?

MP. Kode berrian okupazioa zigortzeko usurpazio delitua jaso zen. Epailen artean, ordea, jarrera kontrajarriak daude, izan ere, konstituzioak pertsona guztien etxebizitza eskubidea jasotzen du. Jabe goaren eskubidea, etxebizitzari dago-kionez, lehenesten da baldin eta etxebizitzak bere funtzio soziala betetzen badu. Horrela ez bada, badira okupazioa onetsi duten epaiak. Zigorrei dagokionez, orain arte, zigorrak bide zibiletik etorri dira.



Imanol Otegi